

**II. ATALA**  
**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Lizitazio: Bermeoko Udaletxea barriztatu (2A fasea)**

1. *Erakunde esleipen emoilea*
  - a) Erakundea: Bermeoko Udala.
  - b) Espedientearen tramitatzaila: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila.
  - c) Espediente zenbakia: 6.2.1/1-13.
2. *Kontratuaren xedea*
  - a) Zehaztapena: Udaletxea barriztatzeko obrak (2A fasea).
  - b) Burutzeko lekua: Bermeon.
  - c) Burutzeko epea: 10 hilabete.
3. *Tramitazioa eta prozedura*
  - a) Tramitazioa: Ohikoa.
  - b) Prozedura: Prozedura irekia.
4. *Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua*

— 408.888,11 euro, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 85.866,50 euro da.
5. *Behin-behineko bermea*

— Oinarrizko aurrekontuaren %3, BEZ kanpo, 12.266,64 euro.
6. *Behin-betiko bermea*

— Esleipenaren zenbatekoaren %5, BEZ kanpo.
7. *Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea*

Berh@z bulegoa eta web orrialdea ([www.bermeo.eus](http://www.bermeo.eus)).
8. *Esleipendunak betebeharreko baldintza bereziak*

— Klasifikazioa: C21, C31, C51.
9. *Proposamenen aurkezpena*
  - a) Lekua: Berh@z Bulegoa, Ertzilla kalea, 6, 8, 48370-Bermeo. Orduak: Asteleheneretik barikura 08:30-14:30. Martitzenetan eta eguenetan 16:30 - 19:00. Larunbatetan 10:00 - 13:00. Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa. Epea: 26 egunetan, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.
  - b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Administrazio baldintza zehatzen orrian zehatzen dana.
10. *Esleipena*

Proposamenak, eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita gehienez hilabeteko epean irekiko dira.

Esleipena gehienez bi hilabeteko epean egingo da proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

— Proposamen ekonomikoa: Gehienez 40 puntu.

Ez dira lizitazio oinarritik goragoko eskaintzak onartuko.



Gainerako eskaintzak holan puntuatuko dira: Lizitazio oinarria 0 punturekin puntuatuko da. Gainera eskaintzak 2 puntu jasoko dabe %1eko baja bakoitzeko.

— Segurtasun eta kalidadea: Gehienez 20 puntu.

Kudeaketa Sistemen inguruko ziurtagiriak izatea baloratuko da. Ziurtagiri bakoitza 5 punturekin puntuatuko da.

— Obrearen metodologia, obraren ezagutza eta hobekuntzak: Gehienez 20 puntu.

- Lizitatzailleek exekutatu dan obrearen garapena azaltzen dauan memoria bat aurkeztu beharko dabe, obrearen metodologia eta planning-a zehaztuz: 10 puntu.

- Aurkezten diran hobekuntzak baloratuko dira. Hobekuntza honeek udalaren lehenetasunen arabera baloratuko dira: 10 puntu.

— Obra egiteko epea: Gehienez 20 puntu.

Ez dira bost aste baino gehiagoko beherapenak onartuko.

Bajatzan dan aste bakoitza 4 punturekin puntuatuko da.

Bermeon, 2017ko maiatzaren 25ean. — Alkatea